BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA SAILA

3859

EBAZPENA, 2011ko uztailaren 4koa, Etxepare Euskal Institutuko zuzendariarena, euskararen eremu geografikotik kanpo musika bira profesionalak egiteko diru-laguntzak esleituko dituen Balorazio Batzordearen osaera jakinarazteko dena.

Oinarria: Ebazpena, 2011ko ekainaren 21ekoa, Etxepare Euskal Institutuko zuzendariarena, euskararen eremu geografikotik kanpo musika bira profesionalak egiteko eta musika-ferietan parte hartzeko diru-laguntzak emateko modua arautzen duena.

Bestalde, ekainaren 21eko Ebazpenaren 7. artikuluaren arabera, Balorazio Batzordeari dagokio aurkeztutako eskaeren ebaluazioa eta ebazpen-proposamena egitea zein berau Etxepare Euskal Institutuko zuzendariari jakinaraztea.

Hori dela bide, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Ebazpen-proposamena egin eta jakinaraziko duen Balorazio Batzordeko kideak izendatzea, bai eta Batzordea osatuko duten kideak ezagutzera ematea ere. Honako hauek izango dira batzordekideak:

Lehendakaria: María Aitzpea Goenaga Mendiola andrea, Etxepare Euskal Institutuko zuzendaria.

Bokalak:

– Maria Jose Olaziregi Alustiza andrea, Etxepare Euskal Institutuko Euskara Sustatu eta Hedatzeko zuzendaria.

– Joseba Epelde Bereziartua jauna, Etxepare Euskal Institutuko Euskara Sustatu eta Hedatzeko arloko teknikaria.

– Alberto Irazu Ibañez jauna, Etxepare Euskal Institutuko Kultura Sustatu eta Hedatzeko arloko teknikaria.

Idazkaria: Maider Etxebeste Egia andrea, Etxepare Euskal Institutuko idazkari teknikoa.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agindua ematea, herritar guztiak jakitun egon daitezen.

Donostia-San Sebastián, 2011ko uztailaren 4a.

Etxepare Euskal Institutuko zuzendaria,
MARÍA AITZPEA GOENAGA MENDIOLA.